

## BALOREZKO PROPOSAMENA

Baloretzko proposamenaren helburua, alde batetik aurretik eskaintzen ez diren produktu zein zerbitzuak sortzean datza. Izan daiteke ere, eskuragarri ematen dugun produktu edo zerbitzuaren baldintzak hobetzea, bezero edo segmentu baten beharrak asetzeko.

Bestalde, bezeroei erraztasunak (orokorrean) eman behar zaizkio. Itxurak garrantzi handia dauka erosterako orduan baita marka ere, haren ospe edo eskusibismoaren ondorioz. Azkenik, erosleek garrantzi handi ematen diote prezioari eta honek haien erosketak baldintzatzen ditu.

Gure enpresak aurkezten duen baloretzko proposamena Arbelak Garbitzeko tresna berri bat da, kontsumitzaileek ekintza hau era erraz, bizkor eta eraginkorrean egitea izan dezaten.

Hortaz, Prestazio bat dela esan dezakegu. Produktu pertsonalizatua dela ere esan dezakegu, eroslearen beharra beti bakarra eta zehatza baita, arbelak garbitzea alegia.

Gainera, lana erraztu eta eskuragarria izateaz gain prezio nahiko egokian saltzea dugu helburu, produktua benetan errentagarri izan dadin eskaintzen duen balioarekiko.